

MARIANO JOSE IBARGUENGOITIA ABADEA

JATORRIA.– Bilbon jaioa da 1815 urtean, dagonillaren sortzian eta aurten ospatzen dogu bere jaiotzaren 200 urteurrena. Bilboko Katedralean, egokiro gogoratzakeo, ikusgai daukaguz bere bizitzaren oroimen goragarrienak

Bere gurasoak Narciso eta Maria Felipa merkatarari zoliak eta entzute onekoak ziran. Bilbon, baña euren ondasunik ederrena amaika seme alaba izan ziran. Narciso jauna aipagarri zan Bilbotarren artean udaletxeko zinegotzi eta batzarretan gidari argia.

GAZTAROA.– Giza bizitzako garairik ederrena gaztaroa da, ondasunik goragarriena, ondo eta onbidean bizi ezkeru.

Marianoren gaztaroa oso oparoa izan zan. 13 urtekin buru argikoa zan matematika, beste gaiak eta arazoak argitzeko. Bere gurasoak pozez ganezka dagoz ori ikusirik eta gogo eta amets bizia dauke bere eskuetan jartzeko merkataritzaren irabazpidea. Mariano gaztearen barne muiñetan beste burutasun bizi bat borbor irakiten dago eta esaten dautse: "Nire irabazbidea neure arimaren salbamena da"

Filosofia ikasirik Iruñako Seminarioan teologia ikasi eta amaiturik Mariano, 1840 urtean, Erromara joango da eta apaiztu Antonio Piatti gotzaiaren eskutik.

ARIMAREN ARGAZKIA.– Bai, Mariano jaunaren arimaren flash batzuk atera eta gozatu nai doguz. Marianok gaztetatik izan dituan asmoak eta borondatea gorengo mallara eldu dira abadetza sakramentua arturik. Bere izakera osoa sagaratu nabaritzen dau, batez be, berba santu onekin "Jaungoikoaren maitasunagaitik eskatzen dautzuet eskaiñi dagizuezala zuen buruak opari bizi, santu eta Jaunarentzat atsegingarri, ori da zuen egiazko kultura"(Rm.12,1). Marianok sentitzen dau biotzaren pil-pil bizi ta gozoa. Zorioneko egun onetan Espiritu santuak



biztu, argitu eta indartzen dau bere burua eta bizi osoa. Argi ikusten dau Espiritu Santuaren emaitz eta mirari aundiena Jesukristo dala eta ona emen Marianoren jarrerera bizigarria: "Jesukristo biziki eta oparo gizakiaren alde izan zan, baña etzan gizakiaren alde biziki izango aurretik Jaungoikoaren alde biziki eta oparo izan ez balitz"(Bon Baltasar)

Apaiz barri onentzat emen dago bere bizi guztirako muin eta gunea, ardatz eta oñarria. Jesukristoren antzeko izan nai dau Jaunaren aurrean eta gizakiaren serbitzuan. Fedearen eta biotzaren bultzada sutsuaz maite ditu bere apaizgoa, Eukaristia, eta Kristoren eliza. Maitasun onetan artzen ditu egunero bere bizirako indar bizigarriak.

Jainkoaren maitasuna eta pobre ta baztertuen serbitzua banatu eziñak dira. Marianoren maitasunak eta biotz zabalasunak ez dauko neurri kordelik. Kristau bizikera onetan agertzen da Jainkoaren bikaintasuna eta edertasuna


Bilbon, bere erri maitean, lagun guztiek Mariano jaunaren santutasuna ikusirik arrituta ao batez esaten dabe. "Zer izango ete da abade gazte au?"

ABADE ONGILLEA.– Mariano abadea Bilboko ardura aundiko Parrokoa izan zan. Lenenngo urteetan San Anton elizakoa, 1858-1873. Eta gero Santiago Apostol elizakoa, 1873-1888. Eliza onetan buru dala asiko da bere bizitzako urregorritzko aroa. Berak egiñak dira Santiago Elizaren dorre eder ta galanta, eta aurrealde bakaiñ-apaña Atxukarro arkitekto ospetsuaren eskutik. Arte-lan aipagarria benetan eta bilbotar guztientzat oso txalogarria.

Bere barne muñetan adore bizia sentitzen dau Kristoren antzera, giza-kiaren ongille ta serbitzari izatea. Ona emen bere ekintza ongarri batzuk.

Siervas de Jesus, Madriletik Bilbora etorriak ziran andere batzuk monja izateko leia biziak. Baña karlista gerra zitara gaitik ez eben ikusten fundazio bat egiteko aukerarik. Euren karisma zan beartsuen eta gaxoen alde ekin Kristoren izenean, etxeetan eta ospitaletan. Baña ez eben ikusten etorkizunik. Zer egin? Mariano abadea izango da euren aingeru jagolea eta Iraslea. Eskeintzen dautse etxe bat, aupatzen ditu ekintza onak egiteko, nobiziak artzeko, elizara etorteko ta laguntzeko ezagunak izan daitezcan, eta etxe barruan, otoitz egin eta bizibide ona izan. Mariano berak egingo ditu gozaintegian bearrezko zerak legeak betetzeko. Eta sortzen da Bilbon, Najan, etxe goragarri bat gaxoen eta pobrien alde. Gaur egun toki askotan zabaldurik aurkitzen dira.

Refugio, Hjas de la Caridad. 1857 urtean Mariano abadeak ikusirik, Bilbon, kale gorrian bizi zirala neska gazte eta emakume batzuek, jakiñik Begoña aldean, etxe bat utzik dagola, legezko zerak egiñik, batzen ditu bertan neska-emakumeek Hi-



jas de la Caridad ardurapean kristau biziak eta etorkizun goragarri bat bizitzen Errukizko egintza ederra, benetan, gaurdano bizirik dagoena.

Hnas. Carmelitas de la Caridad (Vedrunas) Mariano jaunaren deia eta zoragarriko laguntza ontzat arturik etorri ziran Bilbora, eta gaur egun Indautxun, Barrenkua eta Bizkaiko erri batzutan daukez ikasketxeak gaztediari Kristau fedean aziera garbi ta onuragarria bizi eta eragiteko.

PASIoTARRAK.— 1741 urtean San Pablo de la Cruz-ek fundatuak izan giñan Italian.

1877 urtean iru Italiar Pasiotarrak etorri ziran Bilbora emen fundazio bat egiteko asmoz. Fundazioa egiteko leku egoki bat, etxebizitza eta eliza bat bear dira. Gure Pasiotarrak ikusketa eta azterketak egiten diarduela Siervas de Jesus monjak esaten dautse: "Joan zaiteze Mariano abadearengana. Bera da gai eta arazo onetan berarizko laguntzalle ta ongillea". Esan eta izan. Zorioneko egun baten urreratu zan Pasiotarren artera Liboria de Gendika, emakume oso aberatsa, santutasunez jantzia, eta esaten dautse "emen natorkizue Mariano abadearen partez, neure asmo ta borondate ona Jaunaren graziaz betetzeko. Deustu aldean daukoda soro, landa eder eta zabal bat opa dautzuet Fundazioa egiteko Kristo Salbatzaillearen omenez bere misterio goragarria

bizi eta zabaldu dagizuen mundo zabalera osoan". Ez da esatekoa Pasiotarren poztasuna, ta eskerona Jaunaren eta Liboriaren aurrean. Eta 1980. zorioneko urtean, Liboriaren eta erri guztiaren diru laguntzari esker, zabaldu zituen etxebizitza eta eliza barriaren ateak. Egun zoragarri ori, izan zan bai, aukera onena txapela kendu eta aurreku bat egiteko Jaunaren, Mariano, Liboria eta erriaren omenez. Gaur egun 162 naziotan bizi gara Kristoren Gurutzea eta Pazko Jaia eten barik aldarrikatzen.

1886 urtea benetan zoragarria izan zan Deustuko Pasiotarren alkatere eta erriarentzat. Zergaitik? San Felizisimo martiriaren opari miragarria pozez beterik arturik gure kristau bizia, orantza baten moduan, bizitasunez jaiki zalako inguru guztian. Eskerrak Erromako gure Pasiotarrak, eskerrak Mariano abadeari, Liboria andreari eta erri osoari.

Mariano abadeari omena eta oroimena. "Mariano abadeak naiago eban Santiagoko abade etxe apaingabea, gotzaiñen jauregi liraiña baño. Bere gogoa da pobre izan eta diruaren lasaitasun eta arrokeriak ukatu. "Jauna emoidazu aulki xumea bera izan daiten abadeentzat ebanjelioaren katedra" Mariano abadearen bizi osoa Jaunaren aintzagarri, gizakiaren salbagarri eta onuragarri izan zan.

Zenon Uriguen, Pasiotarra

